

Hemen zaude: Hasiera » Aisia » 5. Sagastiak Loretan zikloarekin, ospakizunez beteriko hilabetea datorkigu

5. Sagastiak Loretan zikloarekin, ospakizunez beteriko hilabetea datorkigu

noa 2017-04-28 Aisia, Ingurumena, Jaiak, Jendartea, Kultura 0 iruzkin

Ospakizunez beteriko hilabetea datorkigu jardunaldi eta ikastaroekin, eta tradizio luzeko hitzorduekin. San Ixidro Eguna izango dugu maiatzaren 15ean, eta hilaren 21ean usurbildarren jai egun kuttunena; 36. Sagardo Eguna. “Kaixo lagunok! Hemen dator Usurbilgo XXXVI Sagardo eguna, aurtengoan maiatzaren 21ean ospatuko dugu, urteroko legez sagardoaz eta giro paregabeaz gozatu eta goxatzeko prest? Animatu!”, luzatu dute gonbita Sagardo Egunaren Lagunak taldekoek.

Honatz eragile desberdinen arteko elkarlanean josi den hilabeteko ospakizun egitaraua:

- 5. SAGASTIAK LORETAN OSPAIZUNA: SAGARRONDOEN LORALDIAREN GORAZARRE EKIMENA**
Maiatzak 7, igandea
11:00 Sagardoaren Paisaia Kulturala ezagutzea Zubietako Iruin Sagardotegitik abiatuta. Maialen Lujanbio eta Andoni Egaña ibilbidean zehar bertsotan eta bazkarian azkena. Paisaiaren argibideak Jakoba Errekondoren eskutik.
Ondoren, bertso bazkaria Zubietako Iruin Sagardotegian. Erreserbak egiteko deitu Iruinera (943 361 229) edo Noa!ra (943 360 321).
- Maiatzak 9, asteartea: “Seed Journey” jardunaldia**
10:00 Tabakalera eraikinean (Donostia), Artea eta landa ingurunea: mugaldeak maiatzean, elkarte hauen eskutik: Future Farmers, Flatbread Society, Campo Adentro, Kanpoko Bulegoa, Baserriko Aste Sarea.
18:00 Hitzaldia: “Sagardoa: nekazaritza kultura ozeanoetan zehar”. Hizlariak:
Marc Badal: Sortzezko bekatutik industria paradisura, gozogarriak lubrikatzaile historikoa.
Amy Franceschini: “Seed Journey” egitasmoaren aurkezpena.
Jakoba Errekondo: Sagardoaren Paisaia Kulturala.

- Maiatzak 10, asteazkena: “Seed Journey” jardunaldia**
Hendaiaiko Abbadia Jauregiko bilduma sagastira bisita:
10:00 Domaine d´Abbadieren sarreran. (9:00 Amarako Eusko Tren geltokian)
14:00 Bazkaria upel artean Hernaniko Iparragirre Sagardotegian. Bertako erakusketara eta sagastietara bisita.



idatzi bilaketa irizpidea

bilatu

Eguraldia Usurbilen

Osteguna

21° 14°

34 km/h

Agenda	
MAI 11 og.	17:00 Arrate Egoitzako ikasleen lanen ...
	20:30 Afari beganoa
MAI 12 ol.	19:00 Elkarretaratze zaratatsua, errau...
	20:00 Pilota partida Aginagan
MAI 13 ir.	egun osoa Herri Urratsera oinez
	9:15 Eskubaloia Kiroldegian
	11:00 Ate irekien eguna Lanbide Eskolan
MAI 14 ig.	23:00 Ken Zazpiren kontzertua
	10:00 Eskubaloia Kiroldegian
MAI 15 al.	10:15 San Ixidro Eguna

Egutegia ikusi →



17:00 Cristina Enean talde horma-irudia: Amy Franceschini eta beste artista batzuen laguntzaz Haziaren egoitzan horma-irudia margotzen.

Maiatzak 15, astelehena: San Ixidro Eguna

10:15 Trikitilariak Kaxkoan zehar.

10:30 Meza Salbatore elizan.

11:15 Hamaiketako herrikoia frontoian.

11:45 Herri kirolak Dema plazan.

13:15 Bertso saioa Ane Labaka eta Iñaki Muruarekin.

14:00 Bertso-Bazkaria Artzabal Baserrian.

(txartelak salgai Alkartasunan eta Artzabalen maiatzak 13 arte – Prezioa: 31 €)

Maiatzak 17, asteartea: “Seed Journey” jardunaldia

18:00 “Teosinte, kutsadura genetikoa eta bizitzaren kolonizazioa”, Cristina Eneako eraikinean (Donostia).

Hizlariak: Rosa Benimelis eta Ignacio Chapela.

Maiatzak 20, larunbata

09:00-13:00 Sagarrondotik Sagardora ikastaro zikloko saioa Potxoenean: “Garbitasuna kalitatearen lagun.

Sagardoa egurrezko ontzietan eta sagarrondoaren bizimodua”, Egoitz Zapiain eta Jakoba Errekondoren eskutik.

Izen ematea:

943 361 114

alkartasuna@usurbil.com

alkartasuna.eus

Maiatzak 21, igandea: 36. Sagardo Eguna

Goizean zehar, frontoian herriko baserritarrek eta beste sagardogileak izango dira, Dema plazan

Gipuzkoako sagardogileen elkarteko postuak jarriko dira eta Askatasuna plazan Eusko Labelean sartuta dauden sagardoak dastatzeko aukera izango da. Pintxoak dastatzeko aukera ere izango da.

Goiko plazako oholtzan: Euskal Herriko 1. Egurrezko Sagardoaren Txapelketa.

11:30 Hasiera ekitaldia Aizpurua autobusen eskutik.

18:00-21:00 “Elektro Patxaranga” kaleetan zehar.

Antolatzailea: Sagardo Egunaren Lagunak.

Ekainak 3, larunbata

09:00-13:00 “Sagastien udako kimaketa, gaitzak eta izurriteak”, Aitor Etxeandiaren eskutik.

Izen ematea:

943 361 114

alkartasuna@usurbil.com

alkartasuna.eus

Ekainak 6, asteartea

19:00 Zumeta Arte Estudioan: “Euskal Sagardoa” Jatorrizko Izendapen berriko sagardoaren aurkezpena eta ZUMETA margolariaren erakusketaren irekiera:

-Aurkezpena.

-Sagardo dastaketa eta mokadutxoa.

Unai Agirre, Izendapeneko teknikariaren eskutik. Jose Luis Zumetaren lanen erakusketa ikusgai izango da.

Oharra: Kotxez ezingo da bertaratu. Autobus zerbitzua izango da Kaxkotik.

Antolatzaileak: SAGARDOAREN UNIBERTSITATEA, ALKARTASUNA Usurbilgo Baserritarren Kooperatiba, NOAUA Kultur Elkartea.

Laguntzaileak: USURBILGO UDALA, Usurbilgo SAGARDO EGUNAREN LAGUNAK, ZUMETA Arte Estudioa, EUSKAL SAGARDOA, Gipuzkoako Sagardogileen Elkartea, BIZI SAGARDOA.

Elkarlanean: TABAKALERA Kultur Garaikidearen Nazioarteko Zentroa, CRISTINA ENEA Fundazioa, HAZIERA hazien artxiboa.



Komunitatea

 Usurbil Gure Esku Dago  2017-02-08

400 herritar frontoian, Maiatzaren 7ko Herri Galdeketaren alde.

Abenduan sortu zen Usurbilgo HERRITZARTU



 Usurbil Gure Esku Dago  2017-01-31

OTSAILAK 5: Argazki Erraldoia maiatzaren 7ko Herri Galdeketaren alde.

Maiatzak 7ko Herri Galdeketaren alde 550



 Usurbil Gure Esku Dago  2017-01-23

Herri Galdeketaren alde, 500 sinadura dagoeneko!!

Maiatzak 7ko Herri Galdeketaren alde 500



 Usurbil Gure Esku Dago  2016-11-21

2017: HERRI GALDEKETA USURBILEN?

Erabakitzeko Eskubidearen aldeko olatu indartsu bat sortzen ari da Euskal Herrian eta



 Juanjo Lertxundi  2016-10-29

ZER GALTZEKO PREST ZAUDE?

Irabazi nahi baduzu, jolastu beharra daukazu eta jolastean, galtzeko arriskua daukazu.



 Sutegi Udal Liburutegia  2016-09-16

Sutegi Udal Liburutegian ere, ZUMETA BERRIKUSTEN!

Uztailaren 15etik Urriaren 16ra bitarte, Irungo



 Sutegi Udal Liburutegia  2016-09-05



Harpidetu

Albiste hau atsegin baduzu, harpidetu orain horrelako albiste gehiago jaso ahal izateko.



Utzi zure iruzkina

Zure e-posta helbidea ez da argitaratuko. Beharrezko eremuak * markatuta daude

Iruzkina

Izena *

E-posta *

Webgunea

9W7G

CAPTCHA Code *

Iruzkina bidali

VIII Euskarazko literatura topaketa: Atertu arte itxaron

URRIAK 19an (asteazkena), arratsaldeko

Juanjo Lertxundi 2016-08-29

Esaldi laburra barneratzeko

”Zoriontsuago izan nahi baduzu, ez zaitetz inorekin alderatu “



Juanjo Lertxundi 2016-08-19

Esaldi laburra barneratzeko

”Emozioak ez dira ukatu behar, ezagutu eta kudeatu baizik”



Sutegi Udal Liburutegia 2016-07-14

Hemen da FRESKAGARRIAK 2016!!!

Jada eskuragarri dago Buruntzaldeko Liburutegietan 2016. urteko



IKUSIENAK	BERRIENAK	IRUZKINAK	ARTXIBOA
	Euskal Herria estatu independentea izatearen alde agertu dira usurbildarrak		
	Ken Zazpi, maiatzaren 13an Usurbilen Ken Zazpi Usurbila dator		
	[Iruditan] Herritarrak gogotsu bozkatzan Ohikoa behar lukeen arren,		
	Parte hartzea 18:00etan: Usurbilen %33,75, Zubietan % 50,89 Euskal Herri luze zabalean igande		
	Erraustegia geratzeko lau lan ildo aurkeztu ditu GuraSOSek Maiatzaren 7an urtebeteko		

Jarrai gaitzazu

@noaua(r)en Txioak




Azken argazkiak



Albiste nabarmenduak



5. Dantza Eguna iruditan
Kalejiran goizez, erromeri giroan
arratsaldez eta beste behin, publikoa



Apirilaren 21ean, Xabi Santxo eta Titin III
aurrez aurre
Xabier Santxok GARFE enpresarekin
kontratua sinatu du eta lehen



Tio Teronen Semeak, Bizi Kalean
Usurbilgo V. Dantza Egunaren
ospakizunak igandera arte luzatu



Zubietan ere adostu dute galdera
“Euskal Herri independente bateko
herritarra izan nahi al duzu?”.

Webmapa

- > Agenda
- > Aldizkaria
- > Argazkitegia
- > Komunitatea
- > Merkatu txikia
- > Noaua TB
- > Noaua!
- > Zorion agurrak
- > Zerbitzuak

Artxiboa

Artxiboa



Noaua Kultur Elkartea

Bordaberri 3 Eguzkitzaldea - 20170 Usurbil

Tf: 943 360 321 erredakzioa@noaua.eus

© 2017 Noaua Kultur Elkartea .

Babesleak:



Edertu zaitetz!

noaua
euskaren
aterpe